

## **IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA** **BEHIN BETIKO ONARTZEA OTEITZA, AÑEZKAR ETA LARRAGETAKO HODI** **BILTZAILERAKO PROIEKTURAKO DESJABETZE-ESPEDIENTEA**

Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrek, 2025eko abuztuaren 25ean egin zuen saioan, akordio hau hitzartu zuen:

“2025eko martxoaren 31n, Iruñerriko Zerbitzuak SAren Administrazio Kontseiluak “OTEITZA, AÑEZKAR ETA LARRAGETAKO HODI BILTZAILEA (SM287065\_01)” proiektua onartu zuen.

Iruñerriko Mankomunitateak onartzeko aurkeztutako proiektuan administrazioari jakinarazteko 2.663.793,05 euroko aurrekontu zenbatetsia dago (% 21eko BEZa barne).

Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrek, 2025eko apirilaren 28an egin zuen saioan, hartu zuen akordioaren bidez, Batzar Nagusiaren eskuduntzak Batzorde Iraunkorren esku utzita, “OTEITZA, AÑEZKAR ETA LARRAGETAKO HODI BILTZAILEA (SM287065\_01)” proiektua onartu zen, desjabetzeko espedientea hasi zen eta proiektu horrek ukitzen dituen ondasunen eta eskubideen zerrenda hasiera batean onartu zen. Onuraduna Iruñerriko Zerbitzuak SA da. Gainera, proiektu horrek ukitutako ondasunen eta eskubideen onura publikoa eta okupatu beharra aitortu eta deklaratu ziren, onarpenari lotuta baitaude.

Akordio horretan, proiektua eta ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrenda jendaurrean jarri zen hamabost eguneko eperako.

Onartze horren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, 101. zenbakikoan, 2025eko maiatzaren 22an, Diario de Navarra eta Diario de Noticias egunkarietan, 2025eko maiatzaren 27an, eta Iruñerriko Mankomunitateko eta Berriobeitiko eta Orkoiengo udaletxeetako iragarki-oholetan. Eta horrez gain, jakinarazpenak bidali zitzaizen ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrendan ageri zirenei.

Jendaurreko epearen barnean, hauek alegazioak aurkeztu zituzten:

- Espainiako Trenbide Azpiegituren Administrazioa (Adif). Adierazi zuen 11. poligonoko 144. eta 143. lurzatietan (LO-08 eta LO-09) okupatzeko azalerek jabari publikoko izaera dutela eta trenbideen zerbitzu publikoari atxikita daudela, eta, horrenbestez, ez dela egokia desjabetzea, aldi baterako okupatzea edo zortasuna eratzea, hargatik eragotzi gabe lurzoruaren okupazioa administrazio-emakida bidez, Egoitza Elektronikoaren bitartez baimena eskatuta aurretik. Horrez gain, adierazitako azaleretan zenbait desadostasun daudela adierazi zuen.
- Oteitza Berriobeitiko Kontzejua. Alegazioak aurkeztu zituen katastroko bi lurzatiaren gainean. 1).- 2. poligonoko 173. zenbakiko katastroko lurzatiarekin lotuta, alegatu zuen ez dagoela jabekidetzaren edo kondominiorik haren gainean, 2006ko maiatzaren 25ean alderdien artean hartu zuten erabakiaren arabera, Oteitzako eta Añezkarko kontzejuek jabekidetzaren indargabetzea erabaki baitzuten. Alegazioarekin batera, akordio hori egiaztatzen duten agiriak aurkeztu zituen Oteitzako Kontzejuek. 2).- 2. poligonoko 169. zenbakiko katastroko lurzatiarekin lotuta (D azpi-lurzati), alegatu zuen azpi-lurzati hori jabetzan esleitu zitzaiola Oteitzako Kontzejuari, 1985eko lurzati-biltzearen ondoren, baina ondasunen zerrendan ez dela ageri Oteitzako Kontzejuaren izenean. Kontzejuek Nafarroako Gobernuko Lurzati Biltzeko Negoziatu buruaren komunikazioa aurkeztu zuen, Añezkar – Oteitzan biltze-gunearen jabetza berrantolatzearen protokolizazio-agiriaren kopia eta plano nagusia.

Era berean, 2025eko abuztuaren 14an, Oteitza Berriobeitiko Kontzejuek egindako 1. alegazioaren berri izanda, Añezkarko Kontzejuek Iruñerriko Mankomunitatearen Erregistro Elektronikoan idatzi bat aurkeztu zuen, non ondokoa adierazi zuen: *“Kontzejuko artxiboan eta Añezkarko Kontzejuko Batzordeak hartutako akordioetan dauden agiriak ikusirik, jakinarazi behar dizut Añezkarko Kontzejua ados dagoela 2. poligonoko 173. zenbakiko katastroko lurzatiaren jabetzarekin lotuta Oteitzako Kontzejuek aurkeztutako alegazioarekin”.*

Iruñerriko Zerbitzuak SAk dagokion txostena egin du aurkeztutako alegazioei erantzuteko, eta bertan hau proposatzen du:

A). – Azaldutakoa ikusirik, hauek egindako alegazioak **onartzea** egokia da:

1.- Espainiako Trenbide Azpiegituren Administratzailea (Adif). Egindako alegazioak onartu dira, alderdi hau bat baitator ukitutako azalerek trenbideko jabari publikoko izaera dutela adieraztean, eta, horrenbestez, ez da egokia desjabetzea ez eta zortasun berririk eratzea ere. Hala, okupazioa arautu beharko da egokia den administrazio-baimenaren bidez. Alderdi honek izapidetu du jada baimen hori, eta, beraz, Adifek erabakia hartuko du bere titulartasuneko azalaren gainean.

2.- Oteitzako Kontzejua. Lehenbiziko alegazioa onartu da, aurkeztutako agirien eta Añezkarko Kontzejuak 2. poligonoko 173. zenbakiko lurzatiaren titulartasuna soil-soilik Oteitzako Kontzejuarena dela berretsi izanaren arabera. Horrenbestez, proiektuko lurzatiak eta ondorioz ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrenda aldatu da.

Ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrendatik Berriobeitiko 2 poligonoko 169. lurzati **kentzea**, eta, hortaz, ez da egokia haren titulartasunari buruzko inolako baloraziorik egitea.

B) – Ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrendan egokiak diren aldaketak sartuko dira, onartutako alegazioak behar bezala betetze aldera eta 2. poligonoko 169. lurzatiari buruzko ukipena ezabatze aldera.

Hasierako onespeneraren egunetik oraindaino akordioak lortu dira ukitutako gehienekin, eta, horrenbestez, egokia da akordio horiek desjabetze-prozeduraren barnean sartzea eta behin betiko zerrendan ukitutako lurzati guztiak sartzea. Desjabetze-prozedura jarraituko da hurrengo faseetan soil-soilik akordiorik lortu ez den titularren gainean.

Ondorioz, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 20. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, eta aintzat hartuta, Nafarroako Toki Administrazioaren Foru Legearen 47.4 eta 29. artikuluen, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 4.1.d) artikulua eta Iruñerriko Mankomunitatearen Estatutuen 4. artikulua arabera, erakunde honek desjabetze-ahalmena gauzatu ahal duela, egokia da desjabetzeko espediente behin betiko onartzea.

Batzar Nagusiak 2023ko urriaren 19an egin zuen saioan onartu zen Batzar Nagusiaren eskumenak Batzorde Iraunkorren alde eskuordetzea, nahitaez desjabetzeko espedienteak izapidetzeko.

#### HITZARTU DA:

1.- Espainiako Trenbide Azpiegituren Administratzaileak (Adif) aurkeztutako alegazioak **ONARTZEA**, Iruñerriko Zerbitzuak **SAK** egindako txostenean ageri den zentzuan (honekin batera dago txostena).

2.- Oteitza Berriobeitiko Kontzejuak aurkeztutako alegazioa **ONARTZEA**, Berriobeitiko 2. poligonoko 173. lurzatiari dagokionez, haren gaineko titulartasun eksklusiboa aitortuta kontzeju horri ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrendan. Eta Berriobeitiko 2. poligonoko 169. lurzatiaren gaineko alegazioa dela-eta, ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrendatik kentzea lurzati hori, Iruñerriko Zerbitzuak **SAK** egindako txostenean ageri denaren arabera (honekin batera dago txostena).

3.- Behin betiko **ONARTZEA** “**OTEITZA, AÑEZKAR ETA LARRAGETAKO HODI BILTZAILEA (SM287065\_01)**” obrari dagokion proiektua, eta bai proiektuak ukitutako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda ere, eranskinaren arabera. Horrek berekin dakar onura publikoa eta okupatu beharra deklaratzeko.

4.- **BERRESTEA** Iruñerriko Zerbitzuak **SA**ren eta ukitutako titularren artean lortutako elkarrekiko akordioak, eta nahitaezko desjabetzeko prozeduraren barnean sartzea. Akordiorik lortu ez den lurzatiei dagokienez, desjabetze-prozeduraren hurrengo faseei jarraipena emango zaie, prozedura amaitu arte edo lurzati horien titularrekin akordioa lortu arte.

5.- Nafarroako Gobernuari **ESKATZEA** egin beharreko obraren presazko deklarazioa egin dezala, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan eta hurrengoetan jasota dauden eraginetarako, beharrezkoa baita lanak ahalik eta azkarrena egitea, zerbitzuan dauden hobi septikoen isurketak ezabatzeko, Aratzuriko Hondakin Uren Araztegira bideratuta, araztegi horretan tratatzeko. Hartara, uraren kalitatea hobetuko da Lotzako arro endorreikoan, Lotzako idoian bat egiten duten isurketetara hondakin-urak heltzea ezabatuz, eta onurak izanez osasun publikorako, biodibertsitaterako, araudia betetzeko eta biztanleen ongizaterako.

6.- **EZARTZEA** Iruñerriko Zerbitzuak **SA** sozietateak agindu beharko duela bere banku-kontuetan nahikoa diru egon behar dela eskuragai ukitutako ondasunen eta eskubideen balio justua ordaintzeko eta “**OTEITZA, AÑEZKAR ETA LARRAGETAKO HODI BILTZAILEA (SM287065\_01)**”

obraren desjabetze-prozeduraren ondoriozko gainerako betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko, modu horretan bermatua izan dadin balio justu gisa finkatutako diru-kopuruak ordaintzea ukitutakoei.

**7.- AHALMENA EMATEA** Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariari edo berak eskuordetzen duen pertsonari sinatu ditzan okupatu aurreko aktak eta desjabetzea egiteko beharrezkoak izan daitezkeen bestelako agiriak.

**8.- Akordio hau KALERATZEA**, ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrendarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta Iruñerriko Mankomunitateko eta Berriobeitiko eta Orkoiengo udaletxeetako iragarki-oholetan; eta Foru Komunitateko egunkari batean iragarki berberaren laburpen bat argitaratzea.

**9.- Akordio hau JAKINARAZTEA** interesdunei, adierazita haren aurka errekurtsu hauetako bat aurkez dezaketela, aukeran: 1.- Berraztertze errekurtsua, Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorraren aurrean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta hilabeteko epean. 2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta bi hilabeteko epean. Eta 3.- Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean, egintza hau jakinarazi den egunetik aurrera zenbatuta hilabeteko epean.”.

Iruñean, 2025eko abuztuaren 26an. Lehendakaria, David Campión Ventura.

## UKITUTAKO ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

### FASEA: PROIEKTUA

LURZATIAREN DATUAK					JABEAREN DATUAK		UKIPENAK			
	POLIGONO zk.	LURZATI zk.	UDALERRIA	HERRIA	LURRAREN ERABILERA	IZEN-ABIZENAK	AKUEDUKTU ZORTASUNA metro linealak	ZORTASUN EZARPENA metro koadroak	OKUPAZIOA ERREGISTROAK unitatea	BEHIN-BEHINEKO OKUPAZIOAK metro koadroak
LO-01	11	168	BERRIOBEITI	LOTZA	LEHORREKO ALORRA	LOTZAKO KONTZEJUAREN HERRI-LURRA	221	1.326	4	4.420
LO-02	11	167	BERRIOBEITI	LOTZA	LEHORREKO ALORRA	LARREA CENOZ, JOSE ANTONIO	227	1.362	4	4.540
LO-03	11	166	BERRIOBEITI	LOTZA	LEHORREKO ALORRA	LARUMBE SANMARTIN, ALFREDO	88	528	1	1.760
	11	166	BERRIOBEITI	LOTZA	LEHORREKO ALORRA	LARUMBE SANMARTIN, LUIS				
	11	166	BERRIOBEITI	LOTZA	LEHORREKO ALORRA	LARUMBE SANMARTIN, MARIA				
	11	166	BERRIOBEITI	LOTZA	LEHORREKO ALORRA	LARUMBE SANMARTIN, MARIA ISABEL				
LO-04	11	165	BERRIOBEITI	LOTZA	LEHORREKO ALORRA	SAN MARTIN LEYUN, PEDRO MARIA	358	2.148	7	7.160
LO-05	11	150	BERRIOBEITI	LOTZA	LEHORREKO ALORRA	AZCARATE ECHENIQUE, JOSE JOAQUIN	327	1.962	5	6.540
LO-06	11	149	BERRIOBEITI	LOTZA	LEHORREKO ALORRA	LOTZAKO KONTZEJUAREN HERRI-LURRA	130	780	2	2.600
LO-07	11	145	BERRIOBEITI	LOTZA	LEHORREKO ALORRA	LARREA CENOZ, JOSE ANTONIO	175	1.050	3	3.500
LO-08	11	144	BERRIOBEITI	LOTZA	LARREAK	ESPAINIAKO TRENBIDE AZPIEGITUREN ADMINISTRATZAIL EA	EMAKIDA: 36	EMAKIDA: 216	EMAKIDA: 1	720
LO-09	11	143	BERRIOBEITI	LOTZA	LARREAK	ESPAINIAKO TRENBIDE AZPIEGITUREN ADMINISTRATZAIL EA	EMAKIDA: 32	EMAKIDA: 192	EMAKIDA: 1	640
LO-10	11	142	BERRIOBEITI	LOTZA	LEHORREKO ALORRA	ALDAZ BIURRUN, DEMETRIO	160	960	3	3.200
LO-11	11	141	BERRIOBEITI	LOTZA	LEHORREKO ALORRA	LOTZAKO KONTZEJUAREN HERRI-LURRA	115	690	1	2.300

LO-12	11	101	BERRIOBEITI	LOTZA	LEHORREKO ALORRA	SARASA ELORZ, EUGENIA CAMINO	30	180	1	600
LA-01	8	190	BERRIOBEITI	LARRAGETA	LEHORREKO ALORRA	SARASA ELORZ, EUGENIA CAMINO	172	1.032	3	3.440
LA-02	8	184	BERRIOBEITI	LARRAGETA	LEHORREKO ALORRA	ALDAZ BIURRUN, DEMETRIO	233	1.398	4	4.660
LA-03	8	179	BERRIOBEITI	LARRAGETA	LEHORREKO ALORRA	LECUMBERRI DONAZAR, JOSE MARIA	210	1.260	4	4.200
	8	179	BERRIOBEITI	LARRAGETA	LEHORREKO ALORRA	LECUMBERRI DONAZAR, MARIA SAGRARIO				
	8	179	BERRIOBEITI	LARRAGETA	LEHORREKO ALORRA	LECUMBERRI ESLAVA, MARIA ANGELES				
	8	179	BERRIOBEITI	LARRAETA	LEHORREKO ALORRA	LECUMBERRI ESLAVA, MARIA JOSE				
	8	179	BERRIOBEITI	LARRAGUET A	LEHORREKO ALORRA	LEKUNBERRI ESLABA, JESUS MARIA				
	8	179	BERRIOBEITI	LARRAGETA	LEHORREKO ALORRA	LEKUNBERRI ESLABA, PABLO				
	8	179	BERRIOBEITI	LARRAGETA	LEHORREKO ALORRA	LEKUNBERRI ESLABA, ROSALIA				
LA-04	8	128	BERRIOBEITI	LARRAGETA	LEHORREKO ALORRA	EGUARAS ECHALECU, FELIX JOSE MARIA	379	2.274	7	7.580
	8	128	BERRIOBEITI	LARRAGETA	LEHORREKO ALORRA	EGUARAS ECHALECU, JESUS				
LA-05	8	127	BERRIOBEITI	LARRAGETA	LEHORREKO ALORRA	ALDAZ BIURRUN, DEMETRIO	183	1.098	2	3.660
LA-06	8	243	BERRIOBEITI	LARRAGETA	LEHORREKO ALORRA	LECUMBERRI OLLO, MONTSERRAT	75	450	1	1.500
LA-07	8	23	BERRIOBEITI	LARRAGETA	ERAIKUNTZ A	NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA (AP-15)	57	342	0	0
AO-01	7	137	BERRIOBEITI	AÑEZKAR-OTEITZA	LEHORREKO ALORRA	LAZCOZ LIZASOAIN, ESTEBAN	97	582	0	1.940
AO-02	7	135	BERRIOBEITI	AÑEZKAR-OTEITZA	LEHORREKO ALORRA	LAZCOZ IRIBARREN, FRANCISCO JAVIER	160	960	3	3.200
	7	135	BERRIOBEITI	AÑEZKAR-OTEITZA	LEHORREKO ALORRA	SANZ ALVAREZ, LOREA				
AO-03	7	134	BERRIOBEITI	AÑEZKAR-OTEITZA	LEHORREKO ALORRA	PEREZ DE ZABALZA MUSQUIZ, JOSE JAVIER	243	1.458	3	4.860
AO-04	7	131	BERRIOBEITI	AÑEZKAR-OTEITZA	LEHORREKO ALORRA	LEKUNBERRI ESLABA, PABLO	34	204	1	680
AO-05	2	197	BERRIOBEITI	AÑEZKAR-OTEITZA	LEHORREKO ALORRA	VALLEJO ECHALECU, SABINO	90	540	2	1.800

AO-06	2	196	BERRIOBEITI	AÑEZKAR- OTEITZA	LEHORREKO ALORRA	GONZALO BIURRUN, MARTA	117	702	1	2.340
AO-07	2	190	BERRIOBEITI	AÑEZKAR- OTEITZA	LEHORREKO ALORRA	VALLEJO ASTIZ, TEODORO	74	444	1	1.480
AO-08	2	179	BERRIOBEITI	AÑEZKAR- OTEITZA	LEHORREKO ALORRA	SAGUES ERRO, JESUS MARIA	214	1.284	4	4.280
AO-09	2	173	BERRIOBEITI	OTEITZA BERRIOBEIT I	LEHORREKO ALORRA, ERAIKUNTZ A	OTEITZAKO KONTZEJUAREN HERRI-LURRA	55	330	1	1.100
AO-11	2	37	BERRIOBEITI	AÑEZKAR	BILTEGIA, ETXEBIZITZ A, LURZORUA	BELTRAN SILVA, MARIA BELLA	8	48	0	160
	2	37	BERRIOBEITI	AÑEZKAR	BILTEGIA, ETXEBIZITZ A, LURZORUA	SENRA IGLESIAS, JESUS				
AO-12	2	25	BERRIOBEITI	AÑEZKAR- OTEITZA	ERAIKUNTZ A	NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA (NA-4508)	6	36	0	0
OR-01	1	1109	ORKOIEN	ORKOIEN	LEHORREKO ALORRA	ORKOIENGO UDALAREN HERRI-LURRA	97	582	1	1.940
OR-02	1	7	ORKOIEN	ORKOIEN	LEHORREKO ALORRA	ELIO RODRÍGUEZ, ÁLVARO FERNANDO	214	1.284	3	4.280
OR-03	1	6	ORKOIEN	ORKOIEN	LEHORREKO ALORRA	AZCONA HUARTE, MARIA TERESA	119	714	2	2.380
OR-04	1	2	ORKOIEN	ORKOIEN	LEHORREKO ALORRA	ORKOIENGO UDALAREN HERRI-LURRA	542	3.252	8	10.840